



# 2023ko **JARDUERA-PLANA**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# 2023ko JARDUERA-PLANA

## Aurkezpena 3

### 1. Estatistika-eragiketak 4

- 1.1. BERRITASUNAK 4
- 1.2. AZTERLAN KOIUNTURALAK ETA SINTESIKOAK 4
- 1.3. LANKIDETZAK 4

### 2. Azterlan kualitatiboak 5

- A) SEKTORE-AZTERLANEN LERROA 5
  - GOBERNANTZAREKIN ETA ONDAREAREKIN LOTUTA 5
  - IKUSLEEKIKO HARREMANA 5
- B) KULTURAREN SEKTOREAREN ERRONKAK 6
- C) SEKTORE-ESKARIAK 6



# Aurkezpena

Jarduera-planak 2023. urterako aurreikusitako ikerketen katalogoa jasotzen du, bai ikuspegi kuantitatibotik, bai kualitatibotik.

Estatistikaren eremuan, Behatokiaren bi eragiketa handiek baldintzatzen dute programa: arteei eta kultura- eta sormen-industriei buruzko estatistikak; aurten, Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta gehitu behar zaie horiei. Bost urtez behingo azterlan horrek lagunduko du pandemiaren ostean biztanleriak izan dituen ohiturak eta praktikak ezagutzen. Horiei gehitu behar zaizkie kultura-ohiturei eta enpresa-konfiantzaren adierazleei buruzko luzetarako bi panelak.

Nabarmentzekoa da, halaber, beste erakunde batzuekin (Eustat, Orkestra eta UPV/EHU) lankidetzan egindako azterlanen ildoak.

Eremu kualitatiboan, sektoreen agenda, testuinguru sozioekonomiko orokorra eta kultura-politikak markatzen dituzten gaiei buruzko azterlan berriak biltzen ditu proposamenak.

Kulturklien inguruko lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatuko dute aurtengorako programa. Behatokiaren helburua errealitatea eraldatzen laguntzea da, 2023an dauden gizarte-erronka handiei buruzko datuak eta ezagutza emanez.

# 1. Estatistika-eragiketak

Estatistika-arloari dagokionez, berritasun nagusia finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikan nabarituko da, bigarrenez sormen-sektoreak barne hartuko baitira. Horiekin batera, Behatokiak sustatzen dituen eragiketa koiunturalak eta sintesikoak daude.

## 1.1. BERRITASUNAK

### • **Arteei, Kultura Industriei eta Sormen Industriei buruzko Estatistika (2021)**

Aurten, eragiketa bikoitz horren emaitzak zabalduko dira, Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren zortzigarren edizioari eta Sormen Industriei buruzko Estatistikaren hirugarren edizioari dagozkienak.

### • **Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta (2023).**

Biztanleriaren ohiturak, praktikak eta parte-hartze kulturala ezagutzeko iturri nagusia da. Haren xehetasun- eta zehaztasun-maila dela-eta, funtsezko tresna da, bai gure testuinguruan parte-hartze kulturalaren gakoak aztertze, bai politika kulturalak diseinatzeko.

## 1.2. AZTERLAN KOIUNTURALAK ETA SINTESIKOAK

### • **Luzefarako panelak**

Kultura-ohituren eta -praktiken panelaren beste datu-jasotze bat egingo da; horren bidez, parte-hartze kulturalaren bilakaeraren jarraipena egingo da, 204 pertsonako lagin finko batean oinarrituta.

Enpresa-konfiantzaren adierazleen panelari dagokionez, panel bikoitz horren beste datu-jasotze bat egingo da. Panel bikoitz hori arteetako eta kultura-industrietako 70 agentek eta sormen-industrietako 70 agentek osatzen dute.

## 1.3. LANKIDETZAK

Behatokiak akordioak ditu unibertsitate-eremuan ikerkuntzan diharduten bi erakunderekin:

- Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustu Fundaziokoa: kultura- eta sormen-industrien posizionamendu-azterlanak.
- UPV/EHUko NOR Ikerketa taldea, Applika proiektuan: gazteen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko azterlanak.

Azkenik, eta beste esparru batean, Behatokiaren eta Eustaten arteko lankidetzaren nabarmendu behar da.



## 2. Azterlan kualitatiboak

Behatokiak berak eginiko eta Jarraipen Batzordeak planteatutako proposamenetan oinarrituta diseinatzen da programa.

Jarraian, 2023an egin beharreko lau azterlan planteatzen dira, eta Batzordeak proposatuta gutxienez beste bi sartuko dira.

### A) SEKTORE-AZTERLANEN LERROA

#### GOBERNANTZAREKIN ETA ONDAREAREKIN LOTUTA

**Gobernanta-ereduak ondare immaterialaren kudeaketan.** Kultura-ondarearen kudeaketa garaikideak ikuspegi integralak eskatzen ditu. Ikuspegi integral horiek kontuan hartuko dute gizarte zibila eta eragile pribatuak ere sartzeari, eta haien guztien eskubideak, eginbeharrak eta betebeharrak ezarriko dituzte. Ondare immateriala modu formal eta zabalean aitortuta dago ondare-kategoria gisa XXI. mendearen hasieratik. Tradizionalki, ondare immaterialtzat hartu izan dira belaunaldiz belaunaldi transmititutako erabilerak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak, teknikak, tradizioak eta abar, zeinak garrantzitsuak baitira komunitate baten balorazio historiko eta kulturalerako edo identitaterako. EAEko egungo legerian, garrantzi handiagoa hartzen du ondare immaterialaren kontserbazioak, azken urteotan alderdi immateriala hartzen ari den aintzatespenarekin bat etorritik. Horrekin lotuta, Kultura Ondasun Immateralen Inbentarioa eta Kultura Ondasun Immateralak Babesteko Planak ondare horren babesa ziurtatzeko bi tresna berri dira. Azterlanaren helburua da aztertzea nola arautzen ari diren ondasun immaterial horiek, zer ondorio dituen horiek babesteak eta zein diren administrazio publikoen eta horien garapenean inplikaturako eragileen arteko lankidetzak-mekanismoak.

#### IKUSLEEKIKO HARREMANA

**Zuzeneko arteen ikusleekiko harreman-estrategiak.** Pandemiaren ondoren, kezka dago, zuzeneko kultura-esperientzietan aurrez aurreko ikusleen kopuruak behera egin duelako. Beharrezkoa da jakitea urrutze hori koiunturala den edo parte-hartze kulturalaren eruedetan aldaketa handiagoak gertatu diren. Azterlan honetan, sakonki aztertu nahi dira "ez-ikusleak" izenekoak. Kategoria horretan sartzen dira parte hartzeko ohiturarik ez dutenak eta ohiturak aldatu dituztenak eta, ondorioz, beste jarduerak batzuen alde egiten dutenak. Helburu horrekin, ikusle-kopuruaren garapenari buruz gaur egun dauden eztabaida teorikoak planteatzeaz gain, praktikan kudeatzeko neurriak proposatuko dira.



## B) KULTURAREN SEKTOREAREN ERRONKAK

**Kulturaren erronka berriak turismoa erakartzeko faktore gisa.** Turismoaren eragile nagusietako bat kultura da. Turismoaren Mundu Erakundeak honela definitzen du kultura-turismoa: turismo-jarduera mota bat, non bisitariaren motibazio nagusia baita turismo-destino bateko produktu eta ikuskizun kulturalak –ukigarriak eta ukiezinak– ikastea, deskubritzea, esperimintatzea eta kontsumitzea. Bi helburu orokor ezarri ditu kultura-turismoaren esparruan: arduratsua, integratzailea eta jasangarria izatea, tokiko komunitateen garapen sozioekonomikoa bultzatuz eta haien ongizatea hobetuz, eta destinoko kultura-identitatea aberasten eta kontserbatzen laguntzea, bisitarien eta harrera-komunitatearen arteko truke transkulturalak bultzatuz eta kultura-ondarea sustatuz eta zainduz. Azterlanak Euskadik arlo horretan duen egoera aztertu nahi du. Horretarako, bisitarien estatistiken datuak bilduko ditu, eta indarrean dauden programak berrikusiko ditu, kultura, turismoa eta jasangarritasuna hirukoa kontuan hartuta.

### **Hezkuntzan esku hartzeko eredu berritzaileak: jardunbide egokiak.**

Osagarriak izan beharko liratekeen arren, kultura-politikek eta hezkuntza-politikek nolabaiteko dibergentziak dituzte, haien administrazio-antolamenduak bide paraleloak baititu. Horrek esan nahi du praktikan mugatuta egoten dela prestakuntzaren bidez bizitza kulturalean parte hartzeko politikak ezartzeko aukera. Egituratutako hezkuntza-politika kulturalen faltan, gakoetako batzuk izan daitezke bakoitzaren jardun-esparrua eta mugak aitortzea eta harreman integral baterantz aurrera egiteko beharrezkoa den lankidetzaren ezartzea. Azterlanaren xedea gogoeta egitea da, esparru horretako lankidetzaren jardunbide egokiak aztertuzetik abiatuta.

## C) SEKTORE-ESKARIAK

Behatokiak irekita dauka bidea sektoreentzat, lankidetzan azterlanak egiteko. Orain arte, bi egin dira: bata kaleko arteei buruzkoa, Artekalerekin lankidetzan, eta bestea dantza profesionalari buruzkoa, ADDEk eskatuta. Une honetan, abesbatzei buruzko azterlan bat egiten ari da, Euskal Herriko Abesbatzen Konfederazioarekin lankidetzan.

2023ari begira, **Musika Bulegoak** lankidetzaren eskaera bat egin dio Behatokiari, sektoreko datuak bildu eta aztertzeko.

Era berean, eta etorkizunari begira, **Euskal Dantzarien Biltzarrak** ere Behatokiarekin lankidetzan aritzeko interesa erakutsi du.

